

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA**

4

**ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

632/2014 FORU AGINDUA, abenduaren 1ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren eremuan faktura elektronikoen sarrerapuntu orokorrari eta fakturen kontabilitate erregistroari buruzko alderdi batzuk arautzen dituena.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak, faktura elektronikoa sustatzekoak, fakturen kontabilitate erregistroa sortu du, eta prozedura ezarri du faktura horiek herri administrazioetan tramitzeko, organo eskudunen segimendu-jarduketak arautzeaz gainera. Amaierako bosgarren xedapenak legearen oinarriko izaera aldarrikatzen du, eta horrek esan nahi du herri administrazio guztiei aplikatu beharrekoa dela.

Legearen 2. artikuluan aplikazio eremu subjektiboa ezarzen da. Horrela, artikulua horrek dio herri administrazioen eta ondasun eta zerbitzu hornitzaileen arteko harreman juridikoen esparruan egiten diren fakturei aplikatuko zaiela legea. Gainera, legearen ondorioetarako, herri administrazioetat hartuko dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartuak, 3.2 artikuluan aipatzen dituen ente, organismo eta erakundeak.

Foru Administrazioaren esparruari dagokionez, lege horrek Gipuzkoako Foru Aldundian eta Uliazpi eta Kabia Organismo Autonomoetan du eragina.

Bestalde, 4. artikulua dio herri administrazioari ondasunak entregatu edo zerbitzuak egin dizkieten hornitzaileek faktura elektronikoa egin eta igorri ahal izango dutela. Guztiarekin ere, jarraian aipatzen diren entitateak beti egongo dira behartuta faktura elektronikoa erabiltzera eta hura dagokion sarrerapuntu orokorrean aurkeztera:

- Sozietate anonimoak;
- Erantzukizun mugatuko sozietateak;
- Espainiar nazionalitatea ez duten pertsona juridikoak eta nortasun juridiko gabeko entitateak;
- Zerga araudiak ezarritakoaren arabera, Espainiako lurraldean egoiliar ez diren entitateen sukurtsalak eta establezimendu iraunkorrak;
- Aldi baterako enpresa elkarteak;
- Interes ekonomiko taldeak, interes ekonomikoko Europako taldeak, pensio funtsak, arrisku-kapitaleko funtsak, inbertsio funtsak, aktiboak erabiltzeko funtsak, hipoteka-merkatua erregularizatzeko funtsak, hipotekak titulizatzeko funtsak edo inbertsioak bermatzeko funtsak.

Hala ere, herri administrazioek beren esku izango dute fakturazio elektronikoen obligazio horretatik kanpo uztea, erregelamenduz ezarriko den eran, 5.000 euro bitarteko fakturak eta hornitzaileek herri administrazioen kanpoko zerbitzuei luzatuta koak.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

ORDEN FORAL 632/2014, de 1 de diciembre, por la que se regulan determinados aspectos del punto general de entrada de facturas electrónicas y del registro contable de facturas en el ámbito de la Administración foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Mediante la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica, se crea el registro contable de facturas y se regula el procedimiento para su tramitación en las Administraciones públicas y las actuaciones de seguimiento por los órganos competentes. Su disposición final quinta declara el carácter básico de la Ley, lo que supone su aplicación a todas las Administraciones públicas.

Su artículo 2 determina el ámbito de aplicación subjetivo, estableciendo que la Ley será de aplicación a las facturas emitidas en el marco de las relaciones jurídicas entre proveedores de bienes y servicios y las Administraciones Públicas, y determinando que a los efectos de la misma, tendrán la consideración de Administraciones Públicas los entes, organismos y entidades a que se refiere el artículo 3.2 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

En el ámbito de la Administración foral, la citada ley tiene incidencia en la Diputación Foral de Gipuzkoa y en los Organismos Autónomos Uliazpi y Kabia.

Por otra parte, el artículo 4 de la Ley establece que los proveedores que hayan entregado bienes o prestado servicios a la Administración Pública podrán expedir y remitir factura electrónica. En todo caso, estarán obligadas al uso de la factura electrónica y a su presentación a través del punto general de entrada que corresponda las entidades siguientes:

- Sociedades anónimas;
- Sociedades de responsabilidad limitada;
- Personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica que carezcan de nacionalidad española;
- Establecimientos permanentes y sucursales de entidades no residentes en territorio español en los términos que establece la normativa tributaria;
- Uniones temporales de empresas;
- Agrupaciones de interés económico, Agrupaciones de interés económico europea, Fondos de Pensiones, Fondos de capital riesgo, Fondos de inversiones, Fondos de utilización de activos, Fondos de regularización del mercado hipotecario, Fondos de titulización hipotecaria o Fondos de garantía de inversiones.

No obstante, las Administraciones Públicas podrán excluir reglamentariamente de esta obligación de facturación electrónica a las facturas cuyo importe sea de hasta 5.000 euros y a las emitidas por los proveedores a los servicios en el exterior de las Administraciones Públicas.

6. artikulua ezartzen duenez, Estatuak, autonomia erkidegoek eta toki entitateek faktura elektronikoen sarrera-puntu orokor bat edukiko dute, eta hor jasoko dira haiekin lotuta dauden edo haien mendeko diren entitate, ente eta organismoei dagozkien faktura elektronikoz guztiak. Administrazio bateko faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrak bitartekaritza-soluzio bat eskainiko du faktura aurkezten duenaren eta hura erregistratzeko eskumena duen kontabilitate bulegoaren artean.

8. artikuluan fakturen kontabilitate erregistroaren sorrera arautzen da. Haren arabera, legearen aplikazio eremuan sartzen diren subjektu guztiek fakturen kontabilitate erregistro bana izan behar dute haien jarraipena errazteko, eta erregistro horiek kudeatzea kontabilitate-eginkizuna hartuta daukan administrazio organo edo unitateari dagokio. Fakturen kontabilitate erregistro hori kontabilitateko informazio sistemarekin lotuta edo bertan txertatuta egongo da.

25/2013 Legean jasota dauden bestelako alderdiak bazterrean utzi gabe ere, beharrezkoa da hasierako neurriak hartzea legean ezarritakoa gauzatzeko, bai fakturen kontabilitate erregistroari dagokionez eta bai faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari dagokionez.

Horiek horrela, hau.

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren esparruan, faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontabilitate Zerbitzuak kudeatuko du, faktura elektronikoa sustatzen duen abenduaren 27ko 25/2013 Legeak 6. artikuluan xedatutakoarekin bat.

2. Sarrera-puntu horren bitartez jasoko dira Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Uliazpi eta Kabia Organismo Autonomoiei dagozkien faktura elektronikoz guztiak.

3. Sarrera-puntu horrek bitartekaritza-soluzio bat eskainiko du faktura aurkezten duenaren eta hura erregistratzeko eskumena duen kontabilitate bulegoaren artean. Era berean, ahalbidetuko du faktura elektronikoz 25/2013 Legean zehazten den formatuan igortzea.

4. Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren bitartez aurkezten diren faktura elektronikoz guztiak automatikoki sartuko dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoz batean.

5. Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrak zerbitzu automatiko bat izango du erabilgarri, fakturak erregistratzeko eskumena duten kontabilitate bulegoari haiek elektronikoki bidali edo haien esku uzteko.

2. artikulua. Foru Administrazioaren esparruan faktura elektronikoa erabiltzera behartuak.

1. Aurreko 1.2 artikuluan aipatzen diren entitateei ondasanak entregatu edo zerbitzuak egin dizkieten hornitzaile guztiek sortu eta igorri dezakete faktura elektronikoa. Hornitzaile horiek behartuta egongo dira faktura elektronikoa erabiltzera eta hura dagokion sarrera-puntu orokorrean aurkeztera, entitate hauek direnean:

- a) Sozietate anonimoak;
- b) Erantzukizun mugatuko sozietateak;
- c) Espainiar nazionalitatea ez duten pertsona juridikoak eta nortasun juridiko gabeko entitateak;
- d) Zerga araudiak ezarritakoaren arabera, Espainiako lurraldean egoiliar ez diren entitateen sukurtsalak eta establezimendu iraunkorrak;
- e) Aldi baterako enpresa elkarteak;

Su artículo 6 establece que el Estado, las Comunidades Autónomas y las Entidades Locales, dispondrán de un punto general de entrada de facturas electrónicas a través del cual se recibirán todas las facturas electrónicas que correspondan a entidades, entes y organismos vinculados o dependientes. El punto general de entrada de facturas electrónicas de una Administración proporcionará una solución de intermediación entre quien presenta la factura y la oficina contable competente para su registro.

Su artículo 8 regula la creación del registro contable de facturas, estableciendo que cada uno de los sujetos incluidos en el ámbito de aplicación de la Ley, dispondrán de un registro contable de facturas que facilite su seguimiento, cuya gestión corresponderá al órgano o unidad administrativa que tenga atribuida la función de contabilidad. Dicho registro contable de facturas estará interrelacionado o integrado con el sistema de información contable.

Sin obviar otros aspectos importantes recogidos en la Ley 25/2013, resulta necesario adoptar las medidas iniciales para hacer efectivo lo preceptuado en la misma en cuanto al registro contable de facturas y al punto general de entrada de las facturas electrónicas.

En su virtud.

DISPONGO

Artículo 1. Punto general de entrada de facturas electrónicas.

1. En el ámbito de la Administración foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa el Punto General de entrada de facturas electrónicas se gestionará por el Servicio de Contabilidad del Departamento de Hacienda y Finanzas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 6 de la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica.

2. A través de dicho punto de entrada se recibirán todas las facturas electrónicas que correspondan a la Diputación Foral de Gipuzkoa y los Organismos Autónomos Uliazpi y Kabia.

3. Dicho punto de entrada proporcionará una solución de intermediación entre quien presenta la factura y la oficina contable competente para su registro. Así mismo, permitirá el envío de facturas electrónicas en el formato que se determina en la citada Ley 25/2013.

4. Todas las facturas electrónicas presentadas a través del punto general de entrada de facturas electrónicas producirán una entrada automática en un registro electrónico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

5. El punto general de entrada de facturas electrónicas proporcionará un servicio automático de puesta a disposición o de remisión electrónica de las mismas a las oficinas contables competentes para su registro.

Artículo 2. Obligados al uso de la factura electrónica en el ámbito de la Administración foral.

1. Todos los proveedores que hayan entregado bienes o prestado servicios a las entidades a que se refiere el artículo 1.2 anterior, podrán expedir y remitir factura electrónica. En todo caso, dichos proveedores estarán obligados al uso de la factura electrónica y a su presentación a través del punto general de entrada, cuando se trate de las entidades siguientes:

- a) Sociedades anónimas;
- b) Sociedades de responsabilidad limitada;
- c) Personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica que carezcan de nacionalidad española;
- d) Establecimientos permanentes y sucursales de entidades no residentes en territorio español en los términos que establece la normativa tributaria;
- e) Uniones temporales de empresas;

f) Interes ekonomiko taldeak, interes ekonomikoko Europako taldeak, pensio funtsak, arrisku-kapitaleko funtsak, inbertsio funtsak, aktiboak erabiltzeko funtsak, hipoteka-merkatua erregularizatzeko funtsak, hipotekak titulizatzeko funtsak edo inbertsioak bermatzeko funtsak.

2. 5.000 euro bitarteko fakturak salbuetsita geratzen dira faktura elektronikoa erabiltzeko obligaziotik eta faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrean aurkeztetik. Dena den, 1. apartatua xedatutakoa aplikatuta hornitzaileak behartuta egon badira fakturaren bat formatu elektronikoa egitera 1.2 artikuluan aipatutako entitateetaren bati ondasun entrega bat edo zerbitzu prestazio bat egiteagatik, faktura elektronikoa erabili beharko dute hortik aurrerako ondasun entrega eta zerbitzu prestazio guztietan.

Kontratazio prozedurak 1.2 artikuluan sartuta dauden entitateek bultzatu dituztenean, aurreko apartatua aipatu diren hornitzaileek faktura elektronikoa egin eta bidaltzeko obligazioa izango dute baldin eta esleipen zenbatekoa 5.000 euro baino handiagoa bada, kasu bakoitzean fakturatzen den zenbatekoa zeinahi dela ere.

3. *artikulua. Faktura elektronikoen eta haien sinadura elektronikoen formatua.*

Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren bitartez bidaltzen diren faktura elektronikoen faktura elektronikoen Facturae formatua izango dute, 3.2 bertsioa, eta sinadura elektronikoen formatua XMLAdvanced Electronic Signatures (XAdES) espezifikazioaren arabera izango da.

4. *artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiko faktura elektronikoen sarrera puntu orokorrari atxikitzea.*

1. aktura elektronikoen sarrera-puntu orokor bat ezartzeko obligazioa betetzeko -Faktura elektronikoa sustatzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 6. artikuluan jasotzen da obligazio hori-, Gipuzkoako toki entitateak, eta haien lotutako edo haien mende dauden ente edo organismoak, atxiki ahal izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiko faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari, zeinak emango baitzikie hornitzaileen faktura elektronikoei dagokienez aipatutako puntuan aurreikusita dauden funtzionalitateak.

2. Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari atxikitze egintzak jasota utzi behar du Gipuzkoako Foru Aldundiko faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari atxikitzeko borondatea, bai eta plataforma erabiltzeko baldintzak -Ogasun eta Finantza Departamentuak zehaztutakoak- osorik onartzeko borondatea ere.

3. Beren sistema informatikoak faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrarekin integratu eta bateragarri egitearren atxikitako entitateek abian jarri behar dituzten garapen teknikoak atxikitako entitate bakoitzaren aurrekontuen kargura finantzatzeko dira.

4. Atxikipena borondatezkoa bada ere, sortzen dituen kostu ekonomikoak ordaindu beharra ekar dezake berekin.

5. *artikulua. Fakturen kontabilitate erregistroa kudeatzea.*

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruan, fakturen kontabilitate erregistroa kudeatzea Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontabilitate Zerbitzuari dagokio.

Erregistro hori kontabilitateko informazio sistemarekin lotuta edo bertan integratuta egongo da.

2. Faktura jasotzen duen administrazio-erregistroak Kontabilitate Zerbitzura bidaliko du berehala, fakturen kontabilitate erregistroan haren oharra egin dezan.

Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrean aurkeztutako faktura elektronikoa elektronikoki bidaliko dira, puntu horretan izango den zerbitzu automatiko baten bitartez, fakturan agertzen den kontabilitate bulegoaren arabera kasuan kasu

f) Agrupaciones de interés económico, Agrupaciones de interés económico europea, Fondos de Pensiones, Fondos de capital riesgo, Fondos de inversiones, Fondos de utilización de activos, Fondos de regularización del mercado hipotecario, Fondos de titulación hipotecaria o Fondos de garantía de inversiones.

2. Se excluye de la presentación obligatoria de la factura electrónica y de su presentación en el punto general de entrada de facturas electrónicas, a las facturas por importe de hasta 5.000 euros. No obstante, los proveedores que en aplicación de lo dispuesto en el apartado 1 hayan estado obligados a presentar en formato electrónico alguna factura por la entrega de un bien o la prestación de un servicio a alguna de las entidades de las previstas en el artículo 1.2, en adelante estarán obligados al uso de la factura electrónica en todas las entregas de bienes y prestaciones de servicios.

Tratándose de procedimientos de contratación impulsados por las entidades indicadas en el artículo 1.2, los proveedores a que refiere el apartado anterior estarán obligados a expedir y remitir factura electrónica cuando el importe de adjudicación sea superior a 5.000 euros, con independencia del importe que se facture en cada caso.

Artículo 3. Formato de las facturas electrónicas y su firma electrónica.

Las facturas electrónicas que se remitan a través del punto general de entrada de facturas electrónicas se ajustarán al formato estructurado de la factura electrónica Facturae, versión 3.2, y de firma electrónica conforme a la especificación XMLAdvanced Electronic Signatures (XAdES).

Artículo 4. Adhesión al Punto General de entrada de facturas electrónicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

1. En cumplimiento de la obligación de establecer un punto general de entrada de facturas electrónicas señalada en el artículo 6 de la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica, las Entidades Locales de Gipuzkoa y sus entes u organismos vinculados o dependientes, podrán adherirse al punto general de entrada de facturas electrónicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que les proporcionará las funcionalidades previstas para el citado punto respecto de las facturas electrónicas de los proveedores.

2. El acto de adhesión al punto general de entrada de facturas electrónicas deberá dejar constancia de la voluntad de adherirse al punto general de entrada de facturas electrónicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de aceptar en su integridad las condiciones de uso de la plataforma, determinadas por el Departamento de Hacienda y Finanzas.

3. Los desarrollos técnicos que, en su caso, deban implantar las entidades adheridas para integrar y hacer compatibles sus sistemas informáticos con el punto general de entrada de facturas serán financiados con cargo a los Presupuestos de cada entidad adherida.

4. La adhesión es voluntaria, si bien podrá conllevar la repercusión de los costes económicos que se generen.

Artículo 5. Gestión del registro contable de facturas.

1. En el ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa la gestión del registro contable de facturas corresponderá al Servicio de Contabilidad del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Dicho registro estará interrelacionado o integrado con el sistema de información contable.

2. El registro administrativo en el que se reciba la factura la remitirá inmediatamente al Servicio de Contabilidad para la anotación en el registro contable de la factura.

Las facturas electrónicas presentadas en el punto general de entrada de facturas electrónicas, serán puestas a disposición o remitidas electrónicamente, mediante un servicio automático proporcionado por dicho punto, al registro contable de

dagokion kontabilitate erregistroa. Fakturan adierazi behar da zer administrazio-organori dagoen zuzenduta, Sektore Publiko Kontratuaren Legearen testu bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, hogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

3. Fakturen kontabilitate erregistroan faktura baten oharra hartzeak berekin ekarriko du faktura horri identifikazio-kode bat esleitzea kontabilitate erregistroan. Faktura elektronikoen kasuan, kode hori faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari jakinaraziko zaio.

3. Faktura balekoa bada, Kontabilitate Zerbitzuak organo eskudunari bidaliko dio, faktura-egileak egindako ondasun entregari edo emandako zerbitzuari adostasuna emateko prozedura tramita dezan eta obligazioa aitortzeko espedienteari dagozkion gainerako jarduerak egin ditzan.

4. Dagokion organo eskudunak obligazioa aitortutakoan, proposamenaren tramitazio kontableak edo ordainketa-aginduak proposamenaren xede den faktura (edo fakturak) identifikatuko ditu fakturen kontabilitate erregistroan esleitutako identifikazio kodeen bidez.

6. artikulua. *Fakturen kontabilitate erregistroaren baldintza funtzional eta teknikoak.*

Fakturen kontabilitate erregistroak bete behar dituen baldintza funtzional eta teknikoek dagokienez, faktura elektronikoa sustatzen duen abenduaren 27ko 25/2013 Legean xedatutakoaz gain, ekainaren 24ko HAP/1074/2014 Aginduan ezarritakoa ere aplikatuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru agindu honetan berariaz araututa ez dagoen guztian, aplikagarria izango da abenduaren 28ko 25/2013 Legea, faktura elektronikoa sustatzekoa, eta lege hau garatzen duen araudia.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe garatzen dira foru agindu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

AMAIERAKO XEDAPENA

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean foru agindu hau.

Aurrekoa gorabehera, 2. artikuluan xedatutakoa 2015eko urtarilaren 15ean jarriko da indarrean.

Donostia, 2014ko abenduaren 1a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(10987)

facturas que corresponda en función de la oficina contable que figura en la factura. En la factura deberán identificarse los órganos administrativos a los que vaya dirigida de conformidad con la disposición adicional trigésima tercera del texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

3. La anotación de la factura en el registro contable de facturas dará lugar a la asignación del correspondiente código de identificación de dicha factura en el citado registro contable. En el caso de las facturas electrónicas dicho código será comunicado al punto general de entrada de facturas electrónicas.

3. El Servicio de Contabilidad la remitirá o pondrá a disposición del órgano competente, si procede, para tramitar el procedimiento de conformidad con la entrega del bien o la prestación del servicio realizada por quien expidió la factura y proceder al resto de actuaciones relativas al expediente de reconocimiento de la obligación.

4. Una vez reconocida la obligación por el órgano competente que corresponda, la tramitación contable de la propuesta u orden de pago identificará la factura o facturas que son objeto de la propuesta, mediante los correspondientes códigos de identificación asignados en el registro contable de facturas.

Artículo 6. Requisitos funcionales y técnicos del registro contable de facturas.

Además de lo dispuesto en la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica, será de aplicación lo dispuesto en la Orden HAP/492/2014, de 27 de marzo, con respecto a los requisitos funcionales y técnicos que debe reunir el registro contable de facturas.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En lo no regulado de forma específica en la presente Orden Foral sera de aplicación la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y su normativa de desarrollo.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en la presente Orden Foral.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

No obstante lo anterior, lo dispuesto en el artículo 2 entrará en vigor el 15 de enero de 2015.

San Sebastián, a 1 de diciembre de 2014.—La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Helena Franco Ibarzabal.
(10987)